

Gidariak bidelagun

Beren kontura bidaiatu nahi ez
dutenentzat gidaria funtsezko
elementua da

VIRGINIA Garcia bidaietako gidaria da. Neguan Iberski-rekin elurretako bidaietako gidaria izaten da. Normalean gida baten lana taldea gidatzea da. Batzutan hirietan zehar, baina besteetan autobus gida laguntzaileak izaten dira. Hau da, autobus antolatuetako bidaietan, taldearen ardura hartzen dute, taldea irteera lekuan jaso eta helmugan uztea da beraien lana.

Bidai antolatuak

Virginiak adierazi digunez, bidaien helmuga ezberdina izaten da urte garaiaren arabera eta helmugaren arabera ere jende mota ezberdinak izen ematen du. Neguan, adibidez, elurretarako bidaiak arrakasta handia izaten dute, bai Frantziako zein Espainiako pirineotara eta baita Andorrako eski estazioetara ere. Horiek izaten dira helmuga bisitatuena. «Bidaia zuri hauetara gehienbat jende gaztea joaten da. Hauetan gidaren lana autobus laguntzailearen lana da. Jendea helmugako hotelera eraman eta gero azken egunean jaso. Jende gaztea normalean bere kasa dabil eta ez dute gida baten laguntza asko behar izaten», diosku Virginiak.

Badaude hirietara bisita gidatuak ere. Horiek normalean kanpoko jendeari eta erretiratuei zuzendutakoak izaten dira, hemengo hiri eta txoko berezienak erakusteko. Baina, dudarik gabe, arrakasta gehien izaten dituzten bidaiak, zirkuitoak edo ibilbide antolatuak izaten



■ ■ ■ Gidari bat bisitariei azalpenak ematen.



EDURNE KOCH

dira: Galizia, Andaluzia, Extremadura edo Katalunian zehar egindakoak besteak beste. Bidai mota hauetara joaten den jendea 40-60 urte bitartekoa izan ohi da. «Badaude urteko zenbait

garai bereziki jende helduak bidaiatzeko aukeratzen dituenak. Alde batetik, bidaiak merkeagoak direlako, jende gutxiagok bidaiatzen duelako eta garai horietan denbora libredu edukitzen

duelako. Martxoan eta apirilean eta urrian eta azaroan 50 urtetik gorako jende askok bidaiatzen du. Askotan ez dira urrutirako irtenaldiak izaten. Inguruetan, egun pare bateko irtenaldiak izaten dira gehienetan», azpimarratzen du Virginiak.

Europa hurbila

Europara ere zirkuitoak antolatzen dira. Horien artean, eskal herritarren gustokoak dira Paris eta Erresuma Batua, Virginiak dioskunez. Alemanian eta Italia ere aukeratuenetakoak izaten dira. Bidai horiek normalean autobusean egiten dira, eta egonaldia hoteletan

Arrakasta
gehien izaten duten
bidaiak zirkuitoak
edo ibilbide
antolatuak dira

eta elkarlana bultzatzen badu, denak batera ibiliko dira, bestela bakoitza bere kabuz ibiltzen da. Honekin ez dut esan nahi beti taldeka ibili behar denik; batzuetan bakoitzak aukeratu behar du zer ikusi nahi duen eta zer ez, eta horretarako taldetik kanpo ibili beharra dago. Baina, orokorrean, taldea jatorra denean eta elkarrekin ondo eramaten direnean, bidai dibertigarriagoak izaten dira.»

Beraz, udara honetarako badago non aukeratu. Bidai eskaintzak aztertu behar dira leku egokia aukeratu eta maleta prestatzea besterik ez da behar. Eta, behar izanez gero, gidari on bat.



IZARGI BIDAIK

Elorrixotik
Mundura

Eskatu **IBILTARI**ren prezioak

Izargi Bidaiak
Balentin Berrio-Otxoa, 24
Tel.: 946 584 651

Faxa: 946 584 731
e-mail: txangoak99@euskalnet.net
48230 ELORRIO



LAIDAKANOAK

Jaitsierak Gernikako Itsasadarrean
Tel.: 689 70 87 69 • www.laidakanoak.com

Hauxe duzu...



Deportes de Aventura

ESKALADA
RAFTING
KANOIAK-ARROILAK
LEZEAK
PUENTING
KANOAK eta
NAHI DUZUN GUZTIA

PROGRAMA BEREZIAK
IKASTETXE ETA
KOLEKTIBOENTZAT

Zabalbide 26 - Behea
BILBO
94 432 04 45
659 39 40 88
www.troka.com

